



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



2019-2023 EPERAKO “ESEP” (EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA) ERATZEARREN PARTAIDETZARAKO TXOSTENA

Bitor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (HNT)
2018-otsaila



HPS-K, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, 2013-2023 epera begirako Plan Estrategiko berria egokitzearen prozesua martxan jarri zuen. Ordura arte EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) deitzen izan denak, aurrerantzean ESEP deitura hartuko zuen (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana).

Indarrean izan dugu ESEP 2014-2017 eperako eta horren luzapena egin da 2018rako, hurrengo Plan Estrategikoa 2019-2023 eperako egin bitartean. Jarraiko koadroan agertzen da ESEP-en helburu estrategikoen eta esparruen egitura:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	Funtsezko Esparruak 13 + Zehar lerrokoak 3 ESEP 2013-2023
1. Helburua Euskara ondorengoetaratzea / jabekuntza	1.- Familia transmisioa 2.- Irakaskuntza 3.- Euskalduntze-alfabetatzea
2. Helburua Euskararen erabilera	4.- Administrazioa 5.- Gune geografiko euskaldunenak 6.- Arlo sozio-ekonom 7.- Aisia eta kirola
3.- Helburua Euskara elikatzea	8.- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Publizitatea 11.- Corpus plangintza eta euskararen kalitatea 12.- Hedabideak 13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
4.- Helburuak lortzeko zehar lerrokoak	- <i>Euskararen aldeko motibazioa:</i> 14.- Sentsibilizazioa eta motibazioa - <i>Euskararen zabalkundea:</i> 15.- Barruko proiektzioa 16.- Kanpoko proiektzioa



ESEP-ek ekarritako berriztapen berezi bat izan zen 4. Helburu estrategikoa, “Zehar lerrokoak” deiturikoa. Honetan, estrategia transbertsalak lantzeko ekintzak hartzen dira kontuan, helburu estrategiko desberdinetan eragina dutenak.

Bestalde, planen egitura eta edukia hurrengo era honetara gauzatzen da:

2013-2023 EPERAKO ESEP

- **Helburu nagusia:** “...hizkuntza politika hogeita hamar urte betetzera doan garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da **egungo eta etorkizuneko erronka nagusia**, ..., hizkuntzaren erabilera **dela**”
- **Helburu estrategikoak:** (1) Ondorengoetaratzea/Jabekuntza, (2) Euskararen erabilera, (3) Euskara elikatzea eta (4) Zehar lerrokoak.
- Helburu estrategiko bakoitzeko **esparruak:** aurreko koadroan zehazturikoak, guztira 13, gehi zehar lerrokoenak: (14) sentsibilizazioa/motibazioa, (15) Barruko proiektzioa eta (16) Kanpoko proiektzioa.
- Esparru bakoitzeko **“neurriak”**.
- Neurri bakoitzeko **“ekintzak eta azpiekintzak”**. Hauexek dira garrantzitsuenak, horiexek ematen diotelako edukia Planari. Plangintzaldi bakoitzerako ereduak ekintza zerrenda bat izan da beti, udalerrri bakoitzak bertatik aukeratzeko aukera izanik, eta, bestalde, udal erakunde bakoitzak berak askatasun osoz asmatutako ekintzak ere txertatu ahal izan ditu Planetan. Ekintza bakoitza izendatzeko adibide bat adierazten da jarraian (3.8.2.1. azpiekintza):
 - **3.- Esparrua** (euskalduntze-alfabetatzea)
 - **3.8.- Neurria** (Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak)
 - **3.8.2.- Ekintza** (Mintzapraktika egitasmoak -Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun- zabaltzea)
 - **3.8.2.1.- Azpiekintza** (“Berbalagun” proiektua jorrazteko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna, guraso-laguna...)

2.- PLAN BERRIA ERATZEKO PARTAIDETZA

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2019-2023 eperako eratzeko topagune nagusia eta erabakitzailea Euskara Batzordea izango da eta Gernika-Lumoko gizarte eragile desberdinen partaidetza bideratzearen, lan-mahaiak eratu beharra dago. **Partaidetzarako gonbidapen orokorra egingo da “bando” bitartez eta elkarteak, erakunde pribatuak edo partikularra izan, Euskara Batzordearen ateari zabalik egongo dira nahi dutenentzat.**

Lan-mahaiak helburu estrategikoko eratzeko deritzoguz egokien:

- 1. Lan-mahaia.- 1. Helburu estrategikoa: Euskararen ondorengoetaratzea (dagozkion esparruak lantzeko)
- 2. Lan-mahaia.- 2. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera (dagozkion esparruak lantzeko)
- 3. Lan-mahaia.- 3. Helburu Estrategikoa: Euskara elikatzea (dagozkion esparruak lantzeko)

Lan mahaien helburua eta funtzionamendua:

- **Helburua:** lan-mahai bakoitzak landuko duen helburu estrategikoan aintzan hartzen diren esparruetako hausnarketa egin eta ekintza/azpiekintza proposamenak egitea. Horretarako, lagungarri izango dituzte partaideek bi dokumentu: “2014-2018 epeko ESEP / Balantzea” eta “ereduzko ekintza zerrenda” –azken Planekoa-).
- Euskara Batzordeak finkaturiko **kronogramaren arabera** ekingo dio lan-mahai bakoitzak, hiruzpalau bilkura egiteko.




- **Foro/Lan-mahai bakoitzak koordinatzaile bat** izango du (ikus jarraian dagoen koadroan), idazkari eta dinamizatzaile lanak betetzeko, eta honexek, edo foroak erabakiko lukeenak, izango du ardura ebatzitakoa Euskara Batzordera bideratzeko.
- **Lehenengo saio batean lan-mahai guztien artean** egokituko da euskararen egungo egoera orokorrari buruzko taula (pozteko faktoreak eta kezkatzeko faktoreak). Iraupena ordu betekoa.
- **Bigarren saioa lan mahai bakoitzak burutuko du**, dagokion helburu estrategikoko esparruak 2023an zelan irudikatzen dituen zehazteko. Iraupena ordu betekoa.
- **Hirugarren saioa ere lan mahai bakoitzak egingo du**. Helburua: taula baten zehaztu esparruetan “zer dagoen faltan” eta, horren aurrean, “zer egin dezakegun”. Iraupena ordu betekoa.
- **Laugarren saioa: lan mahai bakoitzak finkatuko ditu esparru bakoitzerako proposatutako ekintzak eta azpiekintzak**. Iraupena ordu betekoa.
- **Bosgarren saioa: lan mahai guztiak batera**, Plan berriaren zirriborroaren aurkezpena egiteko eta, hala uste bada, egokipenak egiteko.

Jarraiko koadroan daude proposaturiko lan-mahaien zehaztasunak:

LAN-MAHAIK / KOORDINATZAILEAK	ERAGILEAK / PARTAIDEAK	LANDUKO DITUZTEN ESPARRUAK
1.- LAN MAHAIA Euskararen ondorengoetaratzea Koordinatzailea: Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza zineg /Eusk. zinegotzia - Irakaskuntza zentroak/Berritzegunea - Guraso elkarteak - Mankomunitateko ordezkaria - Euskaltegiak/Berbalagun - Gainerako zinegotziak... - GEHI nahi izango luketenak..... 	1.- Familia bidezko transmisioa 2.- Irakaskuntza 3.- Euskalduntze-alfabetatzea
2.- LAN MAHAIA Euskararen erabilera Koordinatzailea: Euskara dinamizatzailea	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara Zinegotzia - Busturialdean Euskaraz Bizi - Enpresak / merkataritza - Sindikatuak - Artez enpresako ordezkaria - Kirol erakundea - Gainerako zinegotziak... - GEHI nahi izango luketenak..... 	5.- Gune geografiko euskaldunenak 6.- Arlo sozio-ekonomikoa 7.- Aisia eta kirola
3.- LAN MAHAIA Euskara elikatzea Koordinatzailea: Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara zineg. - Kultur Etxeko ordezkaria - Gainerako zinegotziak... - Komunikabideak (Hitza, Oiz-mendi,...) - KZ guneko ordezkaria - GEHI nahi izango luketenak..... 	8.- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Publizitatea 11.- Corpora plangintza 12.- Hedabideak 13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknolog





3.- PLANA ERATZEKO KRONOGRAMAREN PROPOSAMENA

Jarduerak	Arduraduna	Urt	Ots	Mar	Apir	Maia	Ekai	Uzta	Abuz	Irail	Urri	Aza	Abe
Aurreko plangintzaldiko balantzea bukatu (EUSK. ZERB.)	Eusk. Zerbitzua HNT												
Deialdi orokorra Euskara Batzordean parte hartzeko (bandoa)	Eusk. Zerbitzua HNT			1									
Batzarra: lan-taldeak eratu (3) helburu estrategikoka eta informazioa banatu	Eusk. Batzordea HNT			15									
Hausnarketa fasea: lan talde bakoitzak Bi/hiru batzar	Lan-mahaietako dinamizatzaileak				19	10							
Esparru bakoitzeko ekintza proposamenak zehazten joan eta zirriborria landu	Lan-mahaietako dinamizatzaileak												
Plan Estrategikoaren zirriborria Euskara Batzordean aurkeztu	Eusk. Zerbitzua HNT						28						
Azken fasea: Plan Estrategikoa doitzea	Eusk. Zerbitzua HNT								---				
Urrian Plan Estrategikoaren proposamena aurkeztu Euskara Batzordean	Eusk. Zinegotzia Eta HNT									27			
Kultura/Euskara/Hezkuntza Batzorde Informatiboan proposamena aurkeztu Plenorako	Eusk. Zinegotzia												
Plan Estrategikoa (ESEP) Plenoan onartu	Kult/Eusk/Hezk. zinegotzia												

Kronograma hau Euskara Batzordean aurkeztuko da proposamentzat, onartua edo egokitua izan dadin.

